



10 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

Alarma estatuko 10. eguna. Asteazkena, 2020ko martxoaren 25a

Hilaren 24 asteleheneko Kudeaketa / Ekintzak

BALIABIDE INSTITUZIONALAK

Baliabideak, azkenean, beharretara egokitzen doazela dirudienean, errealitatera itzultzen gaituzten gertakariekin egiten dugu topo. **Enpatiarik ezak, gizatasunik ezak**, bere burua agertzen dute han eta hemen.

Herenegun gauean, **Poliziak erabili gabeko eraikin bat hustu zuen, eta etxebizitza prekariotzat zeukaten bidaiariak** kalera bota zituen. Lo egiteko estalperik ez zutenez, hurrengo gauean Intxaurrondon, zubi azpian egin zuten lo. Han ez ziren bukatu gorabeherak, izan ere, goizaldeko 3etan poliziak esnarazi, kanporatu eta haien ondasun guztiak bota zituen; azkenean hondartzan lo egin zuten.

Gaur egun, udaletxetik prestatuz doazen tokietan daudenez gain, badira eskaintzen zaien alternatiba argi ikusten ez dutenak (esate baterako Atano pilotalekuko atean ehun bat pertsona pilotzea, ireki zenean) eta seguruagotzat jotzen dutenak bertan bizi diren eraikin hutsa. **Egoera horri irtenbidea eman behar bazaio, izan dadila gizarte-zerbitzuekin, ez poliziarekin.**

Baina **ez da soilik polizia gizatasun falta horrekin jokatzeko duena**. Atzo Udalarik eskatu zitzaionean bi gazteak Atanon sartzeko, bertan **lo egiten uzteari uko egin zion**. Ez zegoen argudiatzerik toki-falta zeren bezperan 39 lagunek frontoitik irten baitziren Ubako aterpetxean kokatzeko. Orduan? Gaur hartuko ote dituzte?

Horrelako jokabideek **erakunde baten sinesgarritasuna murriztu egiten dute**. Sinesgarritasuna beharrezkoa da etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten profesionalak eta boluntarioek elkarren arteko konfiantza ezar dezaten, etorkizunari aurre egin ahal izateko.

La Sirena eta Uba udal-aterpetxeetan ostatu hartzen duten pertsonen dagokienez, haiekin harremanetan dauden gazteek beren **poza** adierazten digute duten **sabai eta janariagatik**, bai eta langileek eta boluntarioek ematen dieten **tratuagatik** ere.

ELIKAGAIK

Donostiako biztanleriaren zati batek duen **elikagai-beharrari dagokionez, udalak ez du ezer egiten**. Hamaikagarren eguna da Harrera Sarea, gabezia hori arintzeko azken urtebetean bultzatzen ari garen jardura indartuz, ahal izan dugun moduan baliabideak biltzen saiatu garelako, borondatezko ekarpenen, batez ere ekonomikoen laguntzarekin, eta udala atzo jarri zen harremanetan Sarearekin arazoari nola heldu aztertzeko. Proposamen bat helarazteko eskatu digu, eta berehala bidali diogu. Proposamen hori une honetantxe gauzatu daiteke, eta Harrera Sareak hiriko auzo guztietan eskaini diren boluntarioekin lankidetzan jardungo luke. Behar den gauza bakarra borondate politikoa da. Badago? Ohartarazten al gara lehenbailehen konpontzeko premiaz? Aurrekariak ez diote onik egiten baikortasunari, baina saiatzera behartuta gaude.

Nolanahi ere, **Harrera Sarea, gaurtik bertatik, auzoetako banaketa-sare hori eraikiz joango da**, orain modu zentralizatuan egiten duguna errazteko asmoz. Sare horren protagonista dira horretarako prest agertu diren boluntarioak: 30 lagun atzoko egunera arte. Ezin dugu



10 BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red Ciudadana de Acogida

itxaron udalak bere gogoetak amaitu arte. Goseak ez daki itxaroten. Helarazi diogun proposamenaren gainean lan egitea onartzea espero dugu. Eta egin dezala orain bertan. Bitartean, lanean jarraituko dugu.

Komunikazioa. Sareetan eta komunikabideei 9. buletina zabaldu zaie.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA ETA ERANTZUN SOLIDARIOAK

Bada, begira nondik, atzo **Ertzaintzak** onerako harritu gintuen. Ohituegi geunden ikusten nola ertzainak, udaltzainekin txandakatuz, SOS Arrazakeriaren bulegotik azaltzen ziren elikagaiak banatzen ari ginenean edo etxerik gabeko pertsonak artatzen ari ginenean, bai aurreiritzi xenofoboak (ez dira falta) dituen auzokide tipikoaren salaketa dela, edo beren kabuz, baina atzo haragi eta pasta erretilu mordo bat ekartzeko agertu ziren, eta egia esan, izugarrizko mesedea egin digute. Hamaika ikusteko jaioak gara, beste hark esango lukeen bezala! Eta kasu honetan, ez dut uste "guardiako bizilagunak" udaltzaingoaren aurrean salaketa jarriko zuenik...

Gorago aipatu dugun **auzoetako elikagaiak banatzeko sarerako**, dagoeneko baditugu 30 pertsona. Gaurtik aurrera esperientziari ekingo diogu; auzo guztietan ez bada ere, batzuetan hasiko gara. Gainerakoak modu zentralizatuan betetzen jarraituko dugu.

Ekarpen ekonomiko solidarioari dagokionez:

Zazpi egunetan 123 pertsonen emandako diru-sarrerak, 7.047 €-ko kopurua, bere horretan irauten du. Une honetan gerakin ona dugu, eta, azkenean udalak eremu horretan agertzea erabakiko balu, daukagunarekin ondo molda gintezke. Zalantza hori argitzen denean, finantza-egoerari buruzko xehetasunak emango ditugu. Gaur gastu handia egingo dugu 50 higiene-kitetan.

Ostalaritzaren laguntzaren arloan, Gandarias eta Pandoraren eguneroko ekarpenak jarraitzen du.

Mugikorrak behar ditugu oraindik

Donostiako Hiritarron Harrera Sarea/ Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com 675 71 53 15

Dohaintzak: CC ES44 2095 5013 70 9119577666

Zabaldu, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.